



■ LITERATUR SOLASALDIA

**'Demonios familiares' liburuaz ariko dira**

Astelehenean, Literatur Solasaldien saioa izango da Jorge Carrerorekin. Ana María Matuteren *Demonios familiares* liburuaz ariko dira. 19:30etan, Liburutegian. ■

■ GAZTE ASANBLADA

**BazkariBilerara apuntatzeko azken eguna, gaur**

Larunbatean BazkariBilerara egingo du Gazte Asanbladak eta apuntatzeko epea gaur bukatzen da (Zipotzan). Herriko gazteentzako bilerara esanguratsua dela azaldu dute eta horregatik jendea animatu nahi dute. Bazkaltzen ari direla, gazteak kezkatzen dituzten gaien inguruan hitz egingo dute eta aurten zein ekintza egingo diren pentsatu. Prezioa: 2 euro eta ideiak. ■

■ GALTZAUR

**80 urtekoei omenaldia**

Galtzaurrek 32garren urteurrena ospatuko du eta 80 urte betetzen dituzten bazkideak omenduko ditu. Bazkari eder bat egingo dute. Parte hartu nahi dutenek urriak 27, 28 eta 29an eman behar dute izena, bulegoan (10:00-12:30). ■

**Ibilaldirako, izen ematea**

Galtzaurrek martxa edo ibilaldi erregulatua egingo du azaroaren 8an eta parte hartzeko, izena eman behar da, azaroak 4 baino lehen. ■

■ GIZARTE ZERBITZUAK

**Diru laguntzak eskatzeko, astebete**

Epea ireki da aurtengo gizarte zerbitzu arloetako diru laguntzak eskatzeko. Urriaren 30era arte izango da. Interesatuak udaletxeko Erregistrotik edo Gizarte Zerbitzuetako sailetik pasa daitzke informazioa jasotzera. ■

■ PARKETARRAK

**Jolas saioa, gaur**

Parketarren hirugarren saioa izango da gaur, 17:00etatik 18:00etara eskolako patioan. 2-5 urteko haurrak dituzten familiei eta 6-9 urteko umeei zuzendua da. ■

■ ANTZERKIA

**«Hiru espermatozoidere utziko al zenizkiguke?»**

Asteburu honetan, antzerkiaz gozatzeko aukera izango da kultur etxean. Larunbatean, helduentzako antzerkia izango da: 'Hiru'. Eta igandean, haurrentzako: 'Mollie Malonen ipuina'.

TXALO Produzioak *Hiru* antzez-lana eskainiko du larunbatean, kultur etxean (20:00). Adela, Nekane eta Maitek ez dute elkarren berri izan joan deneko hiru hamarkadetan. Lagun minak, separaezinak ziren, bizitzaren joan-etorrian, baikoitzak bere bide eta esperientziei ekin zien arte. Orain, berrogeita hamarrak betetzeko trantzean, gauza bat dute argi eta garbi: zein baino zein bakartiago bizi direla, hirurak ere, ama izateko ametsa bete gabe. Berandu ote? Eta gustoko gizona aurkituko balute? Eta gizon horrek hirurak haurdun



Aktoreak: Loli Astoreka, Miren Gojenola, Ana Elordi eta Zuhaiz Gurrutxaga.

utziko balitu? Benetako familia bat osatu lezakete... Amesturiko gizon-katxarroarekin egin dute topo eta galdera nagusia dator segidan: «Hiru espermatozoidere utziko al zenizkiguke...?». Barre egiteko aukera izango da komedia dibertigarri honekin.

Igandean, berriz, haurrentzako antzerkia izango da: *Mollie Malonen ipuin sinestezi-na*. 17:30etan izango da. Bi antzerkietako sarrerak salgai daude Udalaren webgunean: [www.astigarraga.net](http://www.astigarraga.net). Antzerkia baino ordubete lehenago ere jarriko dira, leihatilan. Prezioak: 6 euro eta 2,5 euro. ■

■ GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

**Ate irekiak Petritegin, igandean**

Sagardoa nola egiten den ikusteko aukera izango da. Orduetgia: 11:00-13:30.

SAGARRA bildu eta sagardoa egiteko garaia da orain eta sagardotegiek egiten duten lana ezagutzera emateko, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak *Sagastitik Kupelera*

ekimena antolatu du. Ekimen horren barruan, Petritegi sagardotegian ate irekien eguna egingo dute, igandean. Goizeko 11:00etatik 13:00etara izango da.

Jendeak sagarra eta sagardoa nola egiten den ikusteko aukera izango du: sagarra bildu, sagarra probatu, muztioa egin eta probatu... Sagardoa edateko

aukera ere izango da. Petritegiko sagastian hasiko da eguna.

Informazio gehiagorako: 943 45 71 88 telefonoan, edo [www.petritegi.com/es](http://www.petritegi.com/es). ■

■ MUSIKA ESKOLA

**Perkusioa ikasteko aukera**

Helduentzako tailerra da. Izena emateko azken eguna, ostirala da.

HELDUENTZAKO perkusio tailerra antolatu du Musika Eskolak. Azarotik ekainera bitarte izango da eta asteen, 45 minutuko taldeko saioak. Musika mota eta instrumentu desberdinak ikasteko aukera izango da. Gorputz perkusioa landuko

dute eta psikomotrizitatea eta koordinazioa ere bai.

**Musika ezagutza gabe**

Tailer honetarako, ez da musikaren ezagutzarik behar eta instrumentua erosteko laguntza ere emango da.

Tailerraren prezioa: Astigarragakoek 15 euro eta kanpokoek, 17 euro. Zortzi kuota izango dira. Orduetgiak aukeran daude, baina gutxienez 5/6 ikasleko taldeak osatu beharko dira. Asteartetan: 14:15-15:00/21:00-21:45. Eta asteazkenetan: 15:00-15:45/20:15-21:00. ■

sulabe  
**Valella okindegia**  
Nagusia 27  
Astigarraga  
943 33 24 10

**K** ATZA  
Nagusia 32, ASTIGARRAGA  
943 55 49 89  
[ikatza@abema@gmail.com](mailto:ikatza@abema@gmail.com)

**TELEFONOAK** **Taxiak:** 943 55 52 77 **Udaltzaingoa:** 092 **IDYA:** 943 46 46 22 (Hernani)  
**Autobusak:** Areizaga - 943 45 27 08 **Anbulatorioa:** 943 33 56 44  
**FARMAZIAK Egunez:** **ASTEAZKENA Echeveste** Elkano 9, Hernani - 943 552087 **OSTEGUNA Chucla** Kardaberaz 48, Hernani - 943 551793 **OSTIRALA Castilla** Urbieta 7, Hernani - 943 552941 **LARUNBATA Tanco** Idiazabal 39, Umieta - 943 550942  
**IGANDEA Tanco** Idiazabal 39, Umieta - 943 550942 **ASTELEHENA Chucla** Kardaberaz 48, Hernani - 943 551793  
**ASTEARTEA Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola), Hernani - 943 336022 **Gauz: Aizpuru** Latsunbeberri 1, Hernani - 943 336077

EGURALDIA



**GAUR**

Goizaldean euri pixka bat egingo du, baina segituan atertu eta arratsalderako egun argia izango dugu. Temperatura dexente jaitisiko da. Min.12° / Max.16°.

**BIHAR**



Giro eguzkitsua eta lasaia. Ekialdeko haize ahula ibiliko da. Temperatura igo egingo da egunean zehar, baina gauean hoztu egingo du. Min.6° / Max.18°.

(euskalmet)

## AEK EUSKALTEGIA

# Gurasolagun izan nahi?

Izena azaroaren 20a baino lehen eman behar da.

AEK euskaltegiak, Gurasolagun egitasmoa jarri du martxan eta gurasoei dei egiten die parte hartzera animatzeko. Honelaxe funtzionatuko luke: «Gurasoen artean talde txikiak sortuko dira, euskeraz dakitenak eta ikasten ari direnak elkartuz. Talde bakoitzak jarritako ordutegi eta egunetan, euskeraz hitz egiteko elkartuko dira». Egitasmoaren helburua da, ikasten ari diren gurasoei beraien euskera-maila hobetzeko aukera ematea, lagunartea zabaltzea eta gurasoen arteko giroa euskalduntzen joatea.

### Denborari etekina

«Egunero, astelehenetik ostiralera, umeak ikastetxean dau-

den bitartean edo eskola ondorenean, umeak zaintzen elkarrekin ematen ditugun orduak asko izaten dira. Zergatik ez ordu horiek euskeraren alde inbertitu? Gurasolagun egitasmoak denbora horri etekina atera eta euskera bultzatzeko aukera ematen digu», azaldu dute. Eta gaineratu: «Dohainik da, eta eskatzen den gauza bakarra da euskeraz hitz egiteko gogo. Eskatzen den konpromisoa astean ordu betekoa da».

Izena azaroaren 20a baino lehen eman behar da eskolako idazkaritzan edo telefonoz: 607 610 687 (AEK). Azalpen gehiago ere emango dituzte urriaren 30ean, eskolako patioan (17:00). ||

## MOTXIAN EBY ESKETX LEHIAKETA

# Euskerazko abestien parodiarik onenak sarituko dituzte

DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketa da. Esketx bat grabatu beharko da. Bideo onenak 300 euro jasoko ditu eta bigarrenak 200 euro.

MOTXIAN Eby esketx lehiaketa antolatu dute Buruntzaldea eta Oarsoaldeako eskualdeek. DBHko ikasleei zuzendua dago eta parte-hartzaileek euskeraz abesten duen musika talde baten edo euskerazko abesti baten "parodia" egin beharko dute, letra aldatuz eta taldearen arabera moztortuta eta karakterizatuta.

Esketxek euskeraz eginak izan behar dute eta gutxi gorabehera minutu bateko iraupena

izan behar dute. Edozein trenarekin grabatu daitezke: esku-telefonoa, bideo kamera, tableta, argazki makina...

Ekimen honen bitartez, gazteen artean euskeraren erabilera bultzatu nahi dute Udalek, hizkuntza arlo guztietara eramanaz, umorearen arlorra zabalduz.

### Umorea, orijinaltasuna...

Esketxak aurkezteko epea aza-

roaren 14an bukatuko da. Baloratuko dira: umorea, letraren orijinaltasuna, karakterizazioa... Lanak e-postaz edo Whatsapp bidez aurkeztu daitezke. Eskualde bakoitzeko bi sari egongo dira: bideo onenak 300 euro jasoko ditu eta bigarrenak 200 euro. Gainera, publikoaren saria ere izango da. Interneten bozka gehien jasotzen duenak 50 euroko saria irabaziko du. Informazio gehiagorako: [www.motxianeby.com](http://www.motxianeby.com). ||

## ESKU PELOTA

### Gurutzealde partidua, bihar

Oier Gurutzealde astigartarra Urnietako taldean jokatzeko ari da denboraldi honetan. Gipuzkoako bigarren mailako txapelketa jokatzeko ari da Loitegiarekin eta bihar ligillako partidua izango dute Aurrera Saiazen aurka (Umieta, 20:15). Aurreko astean Elgoibarri irabazi zioten 7-22. Bestalde, infantiletan, Mundarroko Ganix Ur-dangarinek 1-2 galdu zuen eta Markel Zapiainek ere bai: 2-1. ||

## SASKIBALOA

### Neskek bakarrik lortu dute garaipena

Asteburu honetan, Euskal Ligako bigarren mailako neskek bakarrik lortu dute irabaztea, Mundarro-La Salleko talde guztien artean. Etxeko lehenengo partidua zen eta 68-64 nagusitu zitzaizkien Electro Alavesako jokalariei. Hasieratik, lehia parekatua izan zen. Mutilek berriz, porrot gogorra jaso zuten Gasteizen. Electro Alavesaren aurka neurtu ziren eta 102-69 galdu zuten. Bertakoak nagusi izan ziren partidu osoan. Probintzial lehenengo mailan, Mundarro-La Sallek 65-35 galdu zuen Bostekoren aurka. ||

## FUTBOLA

### Partidu kaxkarra

Mundarrok partidu kaxkarra jokatu zuen larunbatean, etxean. Lehenengo zatian egindako hainbat akatsen ondorioz, donostiarrak 0-2 aurretik jarri ziren. Bigarren zatian, astigartarrak saiatu ziren partiduari buelta ematen, joko hobea erakutsiz, baina ez zen nahikoa izan. Bigarren zatia erdi aldera, Lengokoak taldeak bere azken gola sartu zuen. ||

## KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		
Erag. Prefontera	Mundarro/Lengokoak	0-3
Dobena Juberria	Urra S. Tomas/Mundarro	0-1
Igo Juberria	Baso/Mundarro	2-1
Dobena Lastera	Mundarro/Lengokoak	1-1
Igo Lastera	Urra/Mundarro	0-2
Dobena Inarrika	Lengokoak/Mundarro	0-3
Inferri Indil	Mundarro/Ostiber	1-3
SASKIBALOA		
2. Eskal. Liga neskek	Mundarro-La Salle/Electro Alavesa	68-64
2. Eskal. Liga mutikak	Electro Alavesa/Mundarro-La Salle	102-69
Probintzialak	Bosteko/Mundarro-La Salle	65-36
Taldeenak	Mundarro-La Salle/Emalide Iru	41-28
Koiziz mutikak	Mundarro-La Salle/Case 99	27-49
Koiziz neskek	Ostiber/Mundarro-La Salle	36-22

3. FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

**herriarrek**  
martxan en marcha

Gipuzkoa

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

Informazio gehiago:  
[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

**GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?**

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean. Zerbitzu berriak ezagutzeko, zator zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriak 22, Hernanin,  
Biteri kultur etxean, 18:30ean**